

noaua

**‘Landareak lantzen’,
lau eskutara eginiko
gida-liburua**

**Felix Aranzadi Manterola
Puerto Ricotik
Aginagara etorri da
bisitan**

**Aginagako festetako
lehen asteburua
jendetsua eta
arrakastatsua izan da**



**Duintasunez bizitzeko martxak
Usurbil zeharkatu du**



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01 
pikabea@pikabeaaseguruak.com

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS

Albistea iruditan

Zumarte barrutik biluztu dute

Biluzik du barnealdea, abuztu amaieraz geroztik birgaitze lan betean duten Zumarte Musika Eskolaren eraikinak. Berritze eta handitze lanok aurrerabidean dira. Honako itxura dute egunotan. Teilaturik gabe, eta erai-kina barrutik hutsik da.

Urtebeteko epean amaitu beharko dituzte obrak. Bitartean, iaz bezala, abiatzear duten ikasturte berri honetan ere, Udarregi Ikastola, Santueneko frontoi ondoko lokala eta Puntapax kaleko egoitza baliatzen segiko du Zumartek.



Urtebeteko epean amaitu beharko dituzte obrak.

Laburrean

1952an jaiotako bazkaria

Abenduaren 2an bilduko dira bazkaritarako Antxeta jatetxean 14:00etan. Izen emateko deitu aurrez, azaroaren 24a baino lehen, 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Urriaren 20an, 1955eko kinto bazkaria

Urriaren 20an batuko dira Atxega jatetxean. Izena emateko azken eguna, urriak 11. Izena emateko: Maribi Arrospide 675 006 445. Patxi Arruti 615 760 458.

Urriaren 21ean, 1946an jaiotako bazkaria

Urriaren 21ean bilduko dira Antxeta jatetxean. Izena emateko deitu aurrez, urriaren 14a baino lehen, Laurok liburu dendara edo 943 363 448 telefono zenbakira.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Duintasunerantz

Ez zen martxa masibo bat izan, baina parte hartzaile kopuruan baino, aldarrikatu eta ordezkatzeko zuten horri guztiari erreparatzen hasita, berebiziko garrantzia duen ekimena izan zen joan den urriaren 4an Usurbil zeharkatu zuena.

Pentsio duinen aldarria jarri zuten mobilizazioaren erdigunean, hala gogorarazten zuten martxa buruko pankartak ere. Baina beste hamai-ka eskakizun biltzen zituen mobilizazioak. Pertsona helduen eskubideen alde irten ziren hainbat herritar, Gipuzkoako pentsiodunen birarekin bat eginez, bizi duin baten alde mobilizatzaera.

Denboran atzera eginda, tokatu zaie gogotik eta eremu ezberdinetan, oinarritzko eskubideen alde borrokatu

beharra. Astelehen eguerdiero hiriburuetakoko pentsiodunen mobilizazioetan ikusten ari garen moduan, denbora pasa den arren, berriz kalera atera beharrean aurkitu dira orain, teoriarik, bizi osoa gogotik lanean eman ostean, merezitako atseden eta lasaitasunaz, duintasunez bizitzea tokatzen zitzaienean.

Hurbilen ukitzen gaituen aldarrikapenerako gai horrek aterarazten gaitu sarritan kalera, plaza publikora. Baina mobilizazio eta dinamika hauek begi bistatik galtzea komeni ez zaigulakoan nago.

Okerrik ez bada, goiz edo beranduago helduko gara orain mobilizatzen ari diren herritarren bizi etapara. Alegia, protestatzen ari direnak, haien baina baita haien atzetik goazenon etorkizunaren alde borrokan ari

dira. Pentsioengatik ere bainoski, baina haratago doa, gu guztion bizi duintasunagatik. Mundu hobean bizi eta etorkizun oparoagoa utzi nahi digute.

Eta oraindik etxeko lan ugari daude egiteke, urriaren 4ko martxan herriko jubilatutako elkarteetako ordezkariak alkateari helarazi zioten gutunak biltzen duen moduan. Ditutzen hamaika erronken erakusle, plazaratu duten eskaera bat; gai guztiok kudeatuko dituen adinekoen zinegotziaren figura sortzeko eskaria.

Haien behar eta eskakizunak ordezkatuak egotea nahi dute erakundeetan. Jada kalean bistan denez, aho-tsa berreskuratu behar izan duten moduan. Hasitako bideak dirudienez ez du atzera bueltarik.


Oraina eta etorkizuna ho-

betzeko ahaleginean jarria dute indarra. Eta etorkizunaz ari garela, urriaren 7an frontoian atera ahal izan genuen irudia datorkit burura. GuraSOS-ek “gure haurrak eta etorkizuna babesteko” antolaturiko ekimena. Atzetik datorkigun belaunaldia etorkizuna kolore biziz marrazten eta eraikitzen aritu ziren.

Kalean, plaza publikoan denontzako etorkizun oparo, duinago osasuntsu eta jasangarriagoa sortzen, eraikitzen ari diren bi adibide azken egunotan, Usurbildik atera gabe. Belaunaldi arteko loturak sendotzen joan gaitzeko etorkizun horren eraikuntzan, zer esan eta zer ikasia izango genuke guztiok, elkar hartuta eta indar gehiagoz duintasunera bidean aurrerantz egiteko.

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | **Aritz Gorriti** | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 19. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 15.

Alternatiba Tourretik ere erraustegia eta metroa geldiarazteko deia

Ekainaren 9an Parisen abiatu, 200 etapa osatu, 5.800 kilometro egin eta bost herrialde zeharkatu ostean heldu zen urriaren 5ean Donostiara, Alternatiba Tourra bizikleta martxa, “Aldatu dezagun sistema, ez klima!” lema-pean. Klima ez, sistema aldatu eta bestelako alternatiben aldeko aldarria zabaldu dute bide osoan zehar.

Bidean zehar egin dituzten geldialdietan, egungo sistema aldatzeko, proiektu kaltegarrien aurkako borrokan edota alternatiba eraldatzaileen alde lanean ari diren tokian tokiko eragile eta herri mugimenduekin elkartu izan dira.

Asteburuan Baionan helmugaratu eta Alternatiben Herria ekimena ospatu aurretik, Donostian egin zieten harre-ra, Gipuzkoako Foru Aldundi atarian, Gipuzkoa plazan. Donostian aurreikusiak dauden etorkizuneko bi proiektu salatu zituzten; “interes ekonomikoen mende dauden soluzio faltsu”



“Aldaketa klimatikoa eragiten duten gas igoerle nagusian bilakatuko da erraustegia”, Donostian salatu zuten.

ALTERNATIBA TOURRA

“Hemendik deialdi bat Gipuzkoako Foru Aldundiari. Alferrrikako azpiegitura kutsakor eta garestia eraikitzeari utz diezaiola eta jarri ditzala indarrak birziklapen emaitza hobek lortzeko”

gisa definitu dituzten metroa eta erraustegia.

“Zubietan eraikitzen ari di-

ren errauskailuaz zer esan? Aldaketa klimatikoa eragiten duten gas igoerle nagusian bilakatuko da, baita osasunarentzat zein ingurumenarentzat kaltegarriak diren substantzia toxikoen igoerle ere. Baina ez hori bakarrik, era berean hondakinen birziklapen eraginkor baterako eta kudeaketa arrazionalago baterako bidean ere oztupo da. Beraz, hemendik deialdi bat Gipuzkoako Foru Aldundiari. Alferrrikako azpiegitura kutsakor eta garestia

eraikitzeari utz diezaiola eta jarri ditzala indarrak birziklapen emaitza hobek lortzeko”, adierazi zuten.

Metroari dagokionez adierazi zuten, “egungo garraio publikoko sare guztiaren aprobetxamenduan eta hobekuntzan oinarritutako alternatibak sustatu ordez, jendartearen desadostasun zabalaren pizten duten behargabeko azpiegitura larhandien inposaketaren adibide biribila delako. Beraz, entzun gaitzatela Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, ez dugula metroaren pasanterik nahi, ezta behar ere”.

Ekonomia solidario eta eraldatzailearen bidean lanean ari diren ekimen eta eragileak go-raipatu zituzten. “Jarrai dezagun bakoitzak bere esparrutik eta elkarlanean alternatibak sortzen”, deitu zuten, asteburuko Baionako Alternatiben Herrira joateko gonbita zabal-tzearekin batera.

Informazio gehiago:

bizimugi.eu/alternatiba.eu

Oroigarria

Mikeliren omenez

Gaixo zu egonagatik beti aurrera begira bizitzari eutsi nahi eta bi begietan distira

Gustora etortzen zinen urtero kinto afarira aurtengoan adierazi zenigun zure desira

Guztiok gonbidatuta Cortijoko etxe berrira Gustora abiatu ginen harako joan etorrira

Egun ederra igarota itzuli ginen herrira Mikeli, han bizitakoak gurekin gelditzen dira



“Gu ezin gara aziendarekin hala bizi”

Mendia guztiona den heinean guztioi dagokigu behar bezala zaintzea. Badirudi ordea hau ez dela guztiz erreala Andatza aldean. Ondo dakite hori Igartzazabal baserrikoek. Ardi zaintzan urteak daramatzate, eta ez dira gaurkoak baten batzuen mendiko ibilerekiz izan dituzten arazoak.

Igartzazabalera igotzeko azken aldapa hasieran, oso argi dion Usurbilgo Udalararen kartel bat irakur dezakegu: “Txakurra kontrolpean eraman, artaldeak inguruan” ohartarazten du. Aurretik izan dituzten arazoak seinalea dugu. Egun, seinaleok etxe atarian eta Puela aldean jarriak egon arren, nabari dute kasu handiegirik egiten ez dioten bisitarien joan etorriak. Halere, “denetan txarrena, txakurrak askan bainatzea” dela, adierazi dio NOAA!ri Igartzazabaleko Santos Jauregik. Hainbatek ohitura hau hartu duela dio.

Lehenago, duela urte batzuk motor zaletuekin izan zituzten arazoak. Artaldean hainbat arazo pairatu behar izan zituzten, tartean, “ume hilak botatzen hainbat ardi”. Halere, NOAA! bidez, lerrootan jakinarazi nahi duen moduan, une honetan badu bestelako kezkarik. Ardiak dituzten lur eremuko itxiturekin gertatzen



Igartzazabal baserrikoek aditzera eman digutenez, “itxitura dagoen lekutik ez du inork zertan pasa beharrik, baimendutakoek bakarrik”. Halere pasatzen direnei, “gutxienez errespetatzea nahi dut, ez dut besterik nahi”. Artaldea bertan ez duenean, kendu egiten du kandadua.

ARDIAK DITUZTEN LUR EREMUKO ITXITURAK

Iaz, urte garai honetan hasi ziren arazoak. Norbaitek “ateak ireki eta ardi denek alde egin zuten”

ari zaiena esaterako. Iaz, urte garai honetan hasi ziren arazoak. Norbaitek “ateak ireki eta ardi denek alde egin zuten. Data jakin batean etxera etortzen dira eta orduko hartan hala egin zuten, nahiko zorte ona izan genuen”.

Itxiturak, baimenduak soilik igarotzeko

Aurten ordea egoera korapildu zaie. Berriki, Andatzako buelta egiten duen herritar batek

jakinarazi zion Santosi “langa irekia zegoela eta ardiak kanpora aterata”. Jauregik aldizkari honi azaldu dionez, “argiak gurutze azpian izaten dira. Itxitura bat egina dute. Hiru apartamendu ditugu, eta bi astero ardiak lekuz aldatuz ibiltzen gara”.

Iaz orotzen duenez, “atakak ireki, ardi denak atera” direla jakinarazi zion zaintzaleak, ardiak zeuden inguruetik erretiratzeko eskatzearekin batera. “Joan eta sartu genituen ardiak. Orduan beheko itxiturari ere kandaduak jartzen hasi nintzen”.

Lur eremu honetako goi aldetik pasatzen denak, ez zuen itxita izan, orain arte. “Orain gertatu dena da, babeslekutik behera bizikleta zaleren batek jaisterakoan atea ireki eta itxi gabe joan dela. Ardiak atera

egin dira”. Esker oneko agertu da gertatu zenaren berri eman zion herritarrari. Ezin esan gauza bera, gertakari hau eragin zuenari.

Ardiak etxera ekarri zituen. Biharamunean, “kandaduak kentzera joan nintzen. Kandadu bat kendu nuen, bestea jota txikitua eta botea zegoen”. Hau egin zuena ez dakite nor den Igartzazabalen, baina argi dio Santosek, “gu ezin gara aziendarekin hala bizi. Itxitura dagoen lekutik ez du inork zertan pasa beharrik, baimendutakoek bakarrik”. Halere pasatzen direnei, “gutxienez errespetatzea nahi dut, ez dut besterik nahi”. Artaldea bertan ez duenean, kendu egiten du kandadua.

Ez luke eremu hura ixterik nahi, eta pasabidea galarazi, “hemen bizi behar baitugu denok”. Argi dio, bizikleta zaletuak eta Andatzara doazena estimatzen ditu, “jende oso ona da”. Hainbatetan berri emaile lanak egiten dizkie gainera. “Txirriindulari eta lasterkari zaletuekin harremana badut eta esaten didate ardiren bat gaizki ote dagoen edo hilda. Horiek denak abixu onak dira guretzat. Ez dut ezeren kezarik baina bat edo bi badira...”. Ez daki nor edo nortzuk diren, “nik ez dut ikusi zeinek egin duen. Baina gu ezin gara aziendarekin hala bizi”.

“Batengatik denek ordaindu behar?”

Ziur da, “bakarren bat izango da, baina batengatik denek ordaindu behar dute? Hala ezin gara ibili”. Gertaturikoaren inguruko parteia emana dute. “Neurriak hartu beharrak daude hor. Zeinek hartu behar dituen? Aurrena, bertan dabilenak behar luke, pasatzerakoan itxitura ire-

ki eta gero pasatzen denean itxi”.

Andatza denona dela argi utzi arren, gogoraraten du, “itxitura horiek guretzat eginak daude. Azienda neure lur sailean izan behar dut. Guk hor eskubideak ditugu aziendarekin ibiltzeko. Baina ezin da azienda tartean ibili”.



Igartzazabal baserrikoek ditenez, kartelari ez zaio kasu handiegirik egiten.

Etorkizun bizi eta koloretsua eraikitzen

Sormen faktoria ederrean bilakatu zuen GuraSOSeK Usurbilgo frontoia eta Sutegi, urriaren 7an. Haur eta gaztetxoek duten aurrera begirako ikuspegia, etorkizuna marraztu zuten, kolore biziz gainera. Eta hitza ere jarri zioten. Sormenerako eta jolaserako txokoak antolatu zizkion guraso taldeak etorkizuneko belaualdiari. “Idatzi eta margotu eta etorkizuna kolore biziz”, hortxe luzatu zieten gonbita.



90 haurretik gora, lagun arte giro lasaian aritu ziren margotzen frontoian.

Lagun arte giro lasaian aritu ziren margotzen frontoian. Marrazki ugari sortu zituzten. Tartean, erraustegiaren aurkako sortze lanak ikusi genituen. Etorkizun koloretsua irudikatzen duen mural handi bat ere diseinatu zuten. GuraSOS-eko kideekin batera, Porrotxen eta Petra Ipurdian Bost Letraren bisita izan zuten etxeko txikienek. Sutegiko erakustaretoan Yolanda Arrietaren hizkuntza jolasetarako laguntza.

GURASOS

“Aurreko igandeko haurren sormen lanak ostiralera arte ikusgai izango dituzue Sutegiko erakusleihoan”

Marrazketa lanetan laguntzen jardun zuten Susana Martinek, Nora Izagirrek eta Eider Makazagak.

Sutegin ikusgai

Aurreko igandeko haurren sormen lanak ostiralera arte ikusgai izango dituzue Sutegiko erakusleihoan. “Nahi duenak, bere marrazki edo idatzia jasotzeko aukera izango du ostegun eta ostiralean, 18:00-19:00 artean”. Bestalde, igandean frontoian “osaturiko mural, marrazki eta hitzetatik... batzuk aukeratuko ditugu eta latoizko kuxtak apaindu”.

Kuxtak salgai ipiniko dituzte urriaren 27ko manifestazioan

Kutxa hauek salgai jarriko dituzte, beste hainbat eragileekin batera, GuraSOSeK ere urriaren 27rako Donostian “Erraustegia gelditu!” aldarriean deitu duen manifestazioan. “Baita ondorengo asteetan ere, beste salmenta tokietan. Horren berri emango dugu GuraSOS-en web orrian”, ohartarazi dute.

Hondakinen kudeaketa plana, erredakzio fasean

Latoizko kuxtekin bildutako laguntza abian den Hitzartu parte hartze prozesura bideratuko du GuraSOS-ek. Gogoan izan, Foru Aldundiak urte luzez ukatutako hitza eman nahi diete gipuzkoarrei eta bide-orri bat diseinatu, hondakinen kudeaketarekin dugun gatazkari elkarlanean konponbide adostua emateko. Aurten abiatutako prozesu honetatik, herritar nahiz adituen ekarpenekin, etorkizunerako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plana erredaktatu eta Aldundiari entregatuko zaio urte amaieran. Une honetan jada, ingeniari talde bat planaren erredakzio lan betean da.

Baina adi, herri ekimen bat dugu honakoa eta laguntza behar du. Urriaren 27ko Donostiako manifestazioan nahiz hortik aurrera, GuraSOS-ek iragarri eta zehaztuko dituen salmenta guneetan eskuratu ahalko dira joan den igandean, haur eta gaztetxoek eginiko sortze lanekin apaindutako latoizko kuxtak. Horrekin prozesu hau lagundu nahi da, eta “defentsa juridikoaren finantzaketa ere aurrera eraman behar dugu”.

Laguntza beharrean

Hitzartu babesteko ekimena izan zen joan den urriaren 7koa. “Gure haurrak eta etorkizuna babesteko. Ingurumena eta osasuna lehenetsiko duen

adostasuneko irtenbide bat aurkitzeko. Garaiz gaudelako. Denen artean landutakoa beti ere onena izango delako”.

Hitzartu diruz laguntzeko ia 22.800 euro bildu dira. 80.000 euro behar ditu, hondakinen kudeaketa planaren erredakzioak, herritar epaimahaiek eta parte hartze prozesuak, edota GuraSOS-ek abian dituen ekimen juridikoek eragindako gastuei aurre egiteko. Hitzarturako ekarpenak bideotatik egin daitezke: Laboral Kutxa:

ES05 3035 0140 33 1400031124
Kutxabank:
ES83 2095 5060 10 9117692165

Informazio gehiago:
gurasos.org

Urriaren 20an, “Zure ametsetako gela” tailerra Aginagan

Izenburu horri lotutako doako tailerra antolatu du Aginagako San Praixku Guraso Elkarteak urriaren 20rako Aginagako ludotekan, 5-12 urte artekoentzat. “Kraftkovia formakuntzarako egitasmo bat da. Hainbat ekimenen bidez, parte hartzailearen sorkuntza gaitasunak garatzeko helburua duena”.

Plaza kopurua mugatua

Izena aurrez eman behar da, aginaga@eskolatxikiak.org helbidean. Antolakuntzak ohartarazi duenez, plaza kopuru mugatua izango da.



Pello Zubiria Kamino

Oreinako zubia

Hor egon behar zuen Khalil eta Martinen aurrean baina ez dago, zorionez. Pelix Bereziartua eta Maria Luisa San Sebastianen *Uriberri* baserrian zaude, ongi etorria paradisuaren atari honetara.

Laulad Ahmed Salehren ezkerreko sorbaldaren parean ageri den kainaberdia da hasi, aurreratu baina bukatu ez zuten zubiak utzitako arrastoa, justuan huts egindako krimenaren froga: Oria ibaiak bere bidea aldatu zuen zubia eraikitzeke bete-lanaren eraginez. 1977 baino lehen Oriotik ekarritako hondarrez lepo sartzen zen *Irisasi* baporea horraino eta harentzako urak bazeukan jiratzeko adina sakon eta zabal. Orduan hasi ziren mamitzen Franco hil aurretik ezkutuan martxan zetorren espekulaziozko operazio handi bat, Aginagatik hasita Ortzaika parean barrena Aia eta Oriorainoko erriberak hormigoiztatu behar zituena. Hura dena egin balitz, Koldo Almandozek ez zion erreparatu ere egingo Mapil inguruari, zer izango ote ziren



“Uriberri baserrian zaude, ongi etorria paradisuaren atari honetara”.

ASPALDIKO EGITASMOA

“Franco hil aurretik ezkutuan martxan zetorren espekulaziozko operazio handi bat hasi ziren mamitzen, Aginagatik hasita Ortzaika parean barrena Aia eta Oriorainoko erriberak hormigoiztatu behar zituena”

Isostegi, Itzao, Motondo... Orduan ikasi genuen Aginaga eta

Usurbilgo batzuek zer zen eskutik helduta gainera etortzea Diputazioko goi-funtzionario ustela, aurpegia garbi erakusten ez duten kapitalista handiak, lekuko bizilagun sikarioa eta ahoa Euzkadiz beteta herria saltzeko pronto zeuden udal hautetsi nazionalistak. Berrogei urte beranduago Joseba Egibarrek –Erabakitzeke Eskubidea ahoan, Banco Santander bihotz ondoan– bere erraustegiarekin gehiegi ez harritzeko eskarmentua ere jaso genuen orduan gazte ginen batzuek. Euskal Herrian ez dira asko izango hasi, ia

bukatu eta hala ere desmuntatzera –nork eta Jaurlearitzak berak– behartutako obra ilegalak, bakarretakoa izan da Aginagako zubia. Bataila hark emango zizkion Koldo Almandoz *Oreinan* sartzeko eszena gehiago, saldukeriak, herritarren manipulazioa (nonbait egongo da Aginagako 500 biztanleei promettitzen zitzaizen piszina olinpikoaren plano, olinpikoa bai, sic), telefonozko mehatxuak, aurre egitera ausartu ziren baserritarrei metak erretzea, jipoiak, pistola... Hori dena ikusi zen urte hartan *Oreinako zubiaren* inguruan, Xabier Amurizak oraindik akorduan izan behar du bertso jarrien aspaldiko bira hartan aipatu izana. Adiskide, hurrengoan Oriako erribera oparoetatik pasatzean oroi zaitez txikizioari aurre egin zioten bakan haiez. Usurbilgo zinegotzi abertzale ezker-tiarrek beren lana zuzen egin zuten, Errebal Txikiko Felix buru zutela. Benetako auserdia lau baserritar obrerok eduki zuten: Ezpaldi Txikiko Balentin, Galardi Azpiko Praixku, Uriberriko Pelix eta Urruzmendiko Kandidok.

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Patrimonia
Iatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera
☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa 2018

Aurten, lanak aurkezteko bi era dituzu: idazlan edo bideo bidez; zuk aukeratu!

Idazlan bidez, oinarriak

ikusi eta lanak bidaltzeko:

Berria.eus/mendietabidaiakronika2018

Bideo bidez, oinarriak:

- Aurkezten diren bideoek originalak eta argitaragabeak izan behar dute.
- Bideo bakoitzak gutxienez **5** minutu eta gehienez **20** minutu izan behar du.
- Bideoek euskarazkoak izan behar du. Euskaraz ez den edukirik balego, euskarazko azpidatziak izan behar ditu.
- Bideoak online sistema bidez (tori.eus edo wetransfer.com) bidali behar dira bideoak@berria.eus helbidera, **azaroaren 11 baino lehen**. Gaia: Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa.
- Bideoarekin batera, hauek ere bidali behar duzue: Bideoaren fotograma bat .jpeg formatuan
- Izenburua
- Sinopsia edo laburpena
- Egileen izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Baloratuko da:
- Kalitate artistikoa
- Gidoiaren originaltasuna
- Edizio lanketa
- Jasotako bideoak **BERRI**aren Youtubeko kanalean jarriko dira, eta **BERRI**aren webgunean publikatuko. Bideoa egin duenak izango du bidalitako lanaren edukia arduratzen.
- **BERRI**ak eskumena izango du lanak lehiaketatik kanpo uzteko; lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu mezu iraingarriak, giza eskubideak urratzen dituztenak edo sexistak darabiltzaten bideoak.
- Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia betez, parte hartzailean jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak **EUSKAL EDITOREA SL** enpresaren tratamendu sistematan jasoko direla, horixe baita **Tratamenduaren Erantzulea**. Hala, parte hartutako lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira, soilik.

SARIA-Idazlana:

Irabazlearentzat, Mendiak eta Herriak mendi gidari elkartearen oparia, lagun batentzat.

ZERMATT INGURUKO GOI MENDIKO ZEHARKALDIA

Breithorn (4.165 m) · Castor (4.226 m) · Parrotzspitze (4.436 m) · Zumsteinspitze (4.563 m)

EGITARAUA:

1. Alpeetarako bidaia. Norbere autoan. Gaba Saas Grund herrian, Sultz. Mantenu erdia.
2. Theodul aterpea (3.200 m). Saas Grund – Tasch, gure autoan. Tasch – Zermatt, taxiz. Teleferikoa Zermatt – Trockener Stegg (2.700 m). Trockener / Rifugio Theodul (3.200 m), Theodul glaziarrean barna, 1.30 ordu. Mantenu erdia.
3. Breithorn (4.165 m eta 4.160 m). Theodul / Breithorn lepoa, 1.30 ordu. Breithorn lepoa / Breithorn (4.165 m eta 4.160 m), bi gailurren arteko zeharkaldia eginez. Guida Val d'Ayas aterpera (3.200 m). Mantenu erdia.
4. Castor (4.226 m). Val d'Ayas / Castor (4.226 m), 4 ordu. Castor gailurra / Quintino Sella aterpea (3.400 m). Bi ordu. Mantenu erdia.
5. Parrotzspitze (4.436 m). Quintino Sella aterpea / Liskjoch lepoa / Ludwigshöhe (4.341 m), Parrotzspitze (4.436 m) gailurra. Punta Gnifetti —4.556 metrora igoko gara, non Margerita aterpea dagoen. Alpeetako aterperik altuena—. Mantenu erdia.
6. Zumsteinspitze (4.563 m). Margerita / Zumsteinspitze (4.563 m), ordu bat. Grengletscher glaziarretik behera egingo dugu, Mte Rosa aterperaino (2.800 m). Mantenu erdia.
7. Zermatt eta Saas Grunderako itzulera. Mte Rosa aterpea / Grengletscher glaziarra / Rottenboden tren geltokirako igoera. Trenz Zermattera. Zermatt – Tasch – Saas Grund.
8. Etxerako itzulera

SARIA-Bideoa:

Irabazlearentzat, ATXASPI HOTELEAN **Relax** asteburu-pasa, bi lagunentzat.

Parte hartzaile guztien artean, APALATEGI KIROLAK dendan gastatzeko 100 euroko 3 bonu.

BABESLEAK:



ATXASPI HOTELA



APALATEGUI
DEPORTEAPALATEGUI.COM

‘Landareak lantzen 2019’, baratzean ikasitakoa idatziz jasotzeko gida-liburua


Jakoba Errekondoren azalpenekin eta Antton Olariagaren marrazkiekin osatutako argitalpenak helburu zehatz bat du: “urtean zehar egin behar diren lanak bildu eta eskura edukitzeko balio du”, Jakoba Errekondok irailaren 23ko aurkezpenean adierazi zuenez.

Hilabeteka antolatuta

Lau ataletan antolatuta dator gida-liburua: baratzea, basoa, fruitu-arbolak eta lorategia. “Lau atal horietan, hilabetez hilabete azaltzen dira zer nolako lanak egin behar diren”. Hilabeteka antolatuta dago liburua “landareek horrela funtzionatzan dutelako”, Errekondok argitu nahi izan zuenez. “Guretzat saio bat urtaro bat da –udaberria, udazkena...–, baina landareek ilargialdika funtzionatzen dute”. Hilabetea hortik dator, hain juxtu: “hilabete bat da ilargi bat; ilgora bat eta ilbehera bat. Lanak ere, horrelaxe azaldu ditugu”. Gida-liburuak astez aste azaltzen du zein ilargialdian gauden. “Ilgora eta ilbehera zikloak nahiz ilberri eta ilzahar zikloak ere zehaztuak datoz”.

Jakinduria gal ez dadin

Astez aste egindako lanak apuntatzeko aukera eskaintzen du liburu berriak. “Hau oso inportantea da”, hala dio



Bi usurbildar Azpeitiko Azokan. Bertan aurkeztu zuten liburua. Iazko gidan bezalaxe, elkarlanean aritu dira Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga marrazkilaria.

JAKOBA ERREKONDO
“Hurrengo urteetan egin behar ditugun lanetarako oso baliogarria izango zaigu gida-liburuan batu dugun informazioa”

Errekondok, “egiten ditugun lanak edota entzuten ditugun esaerak apuntatu eta jasotzeko. Denak jabetzen gara zenbat gauza eta zenbat jakintza galtzen ari garen gure lurraren inguruko kulturari”. Egindako lanak idatzita jasotzeko bes-

telako garrantziarik ere badu: “hurrengo urteetan egin behar ditugun lanetarako oso baliogarria izango zaigu gida-liburuan batu dugun informazioa”.

Baratze-tresnen presentzia

Gida berriak iazko argitalpenaren ildo jarraitzen du baina honakoan bada nobedaderik: baratze-tresnetan erreparatu dute Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak. “Nekazaritzan, historikoki, lan tresna mordo bat erabili izan da baina gaur egun lan gehientsuenak makinarekin

edo motorrarekin egiten ditugu. Orduko horien izenak, lan egiteko erak eta teknikak galtzen ari dira. Horiei tartetxo bat egin diegu, jakinduria hori dena gal ez dadin”.

Tresneria eta tresneriaren mekanika argazkiekin azaltzea oso zaila dela dio Errekondok eta, iaz egin bezalaxe, honakoan ere marrazkiekin ilustratu dute liburua. “Antton Olariagaren marrazkiak luxuzkoak dira eta marrazkiengatik bakarrik merezi du liburua edukitzeak, arte-obra batzuk dira”.

Errezilgo Azokako emakumeei gorazarre

Jakintza jaso eta transmitzea. Hori da, funtsean, Jakoba Errekondoren asmo nagusia. Ahalegin horretan dihardu aspaldian eta Errezilgo Azokako kideak ere bide berean ari dira. Azpeitiko Azokan aurkeztu zuten *Landareak lantzen 2019* gi-

da-liburua eta errezildarrak omentzeko aukera aprobetxatu zuen Errekondok: “eskualde honetan baten batek omenaldi bat merezi badu, Errezilgo emakume hauek dira. Nekazaritza sustatzea boladan dagoela dirudi baina duela 30 urte ia inork ez zuen

horrela pentsatzen”.

80ko hamarkada amaieran, Errezilgo emakume talde batek proiektu komun bat bideratu zuen, “bertako produktuak sustatzeko, elkarri lagunduz euren bizimodua aurrera ateratzeko, lanpostuak sortzeko... Etxetik atera

eta nor badirela adierazteko”. Sagarra, sagar dultzeak, mermeladak, intxaurreak, gazta, babarrunak... Gero eta nekazal produktu gehiago merkaturatzen dituzte. Denda bat dute Errezilen eta hainbat azokatan ibiltzen dira.

Antton Olariaga: “Nire atxurra errotuladorea da”

Liburua eskuratuko duenaren ardura hauze lizango da: baratzean egindako lana agendan jasotzea. “Eta jasoz ikastea, eta niri gauza bera gertatzen zait”. Antton Olariaga marrazkilariaren hitzak dira. Iazko argitalpenean egin zuen bezalaxe, iruditan ipini ditu Jakoba Errekondoren esanak.

Lankidetzan oinarritu da sormen prozesua eta marrazkilariak asko eskertzen duen zerbitu da: “baratzeari buruz ezer gutxi dakit eta Jakobak ematen didan informazioarekin saiatzen naiz paperezko baratze horretan nire ekarpena egiten”.

“Nik ere nire paperak ureztatzen ditut”

Horretarako bere lan tresna propioak ditu Olariagak: “nire atxurra errotuladorea izaten da. Nik ere nire paperak ureztatzen ditut, batzuetan ur gaziarekin propio, gehienetan kolorearekin...”. Baina azken buruan, bere marrazkiek galbahe batetik pasa behar izaten



Errezilgo Azokako Emakumeekin batera egin zuten 'Landareak lantzen 2019' liburuaren aurkezpen ekitaldia. Argitalpen berria Alkartasuna kooperatiban, Lizardin eta Laurok dendetan eskura daiteke.

ANTTON OLARIAGA

“Gozamen izugarria da lan hau gauzatuta ikustea, paperezko baratze honen fruitua dastatzea”

dute. Jakoba Errekondoren oneritziarekin amaitzen da

lana. Marrazki bat egin orduko, “Jakobak balekoa zela esaten zidanean poz handia hartzen nuen. Hala osatu dugu liburu hau”, Azpeitiko Azokan eskaini zuten prentsaurrekoan adierazi zuenez. “Orain, gozamen izugarria da lan hau gauzatuta ikustea, paperezko baratze honen fruitua dastatzea”.

Non eskuratu daiteke liburu?

‘Landareak lantzen 2019’ argitalpena Usurbilgo saltoki hauetan topatuko duzue: Alkartasuna Kooperatiban, Lizardi eta Laurok dendetan.

Argiaren bitartez, bestela. 943 37 15 45 telefono zenbakira deituz, denda@argia.eus helbidera idatziz edo argia.eus web orrian.

Dastatuz hobeto ezagutzen da sagarra

Sagastiak Loretan zikloaren baitan, ekitaldi ugari egin ziren duela bi aste. Tartean, sagar dastatzea. Fruituek dastaketarako propio aukeratako barietatez gain, Gabriel Durruty adituak beste horrenbeste sagar mota eraman zituen Sutegira.

Jakoba Errekondok ekitaldiaren hasieran aitortu zuenez, “asmoa da sagar hauen historia ezagutzeko”. Barieta-teen berri ematez gain, sagar mota bakoitzaren xehetasunak ezagutzeko.

Sagar familia bakoitzaren historia argitzeko ahalegina

Ekimen baten berri ere eman zuen Jakoba Errekondok: “orain hasi dira ikerketa genetiko bat egiten, sagar familia bakoitzaren historia argitzeko asmoarekin”, Sutegin batu ziren lagunen aurrean aitortu zuenez. Sagar mota bakoitzaren ezaugarriak hobeto ezagutzeko aukera eskaintzeaz gain, izendegiaren inguruan egon daitezkeen zailtzak argitzeko balioko du ikerketak. “Ea izen saltsa behin- goz argitzen dugun”.



Barietateen berri ematez gain, sagar mota bakoitzaren xehetasunak ezagutzeko aukera izan zuten Sutegiko dastaketara hurbildu zirenek.

Puerto Ricotik San Praixkuetara bisitan

Munduan zehar diren aginagarrak ere etxera itzularazten dituzte San Praixkuek. Galdetu bestela Felix Aranzadi Manterolari. Bost hamarkada luze daramatza Puerto Ricon bizitzen, baina hilabeteko tartea hartzen du urtero sorterrria duen Aginagara itzultzeko. San Praixku Eguneko jubilatuen hamaiketakoan elkarrizketatu genuen Aranzadi.



Felix Aranzadi duela 50 urte joan zen Puerto Ricora.

NOAUA! Urteroko bidaia da hau?

Felix Aranzadi Manterola. Urtero. Herrimina sentitzen da beti. Eta Aginaga mina batez ere.

Aginagan jaioa, Puerto Ricora joana duela 51 urte. Zerk eraman zintuen harantz?

Lanera. Santurtzitik irtendako itsasontzi batean heldu nintzen Puerto Ricora. Hango portuak ere Santurce zuen izena eta hantxe sartu nintzen Puerto Ricon 1967an.

Erabaki zaila izan al zen dena utzi eta hara joatea?

Ez. Han lagunak nituen lanean eta laguntzera joan nintzen. Han 13-14 urtez egon ostean, gero ezkontzarako bidea hartu nuen. Halako gauzak gertatzen dira eta hantxe bizi naiz, San Juan de Puerto Rico hiriburua- ren ondoan, Caguasen. Hiri handi samarra da, Donostiaren antzerakoa. Jatetxea ere zabalik izan dut hantxe. Felix izena zuen, gero alabak hartu eta Euskadi izena jarri zion. Orain alokatua dugu.

Bizi osoa hantxe.

Oso pozik gainera. Han ere independentzia izatea nahi dugu, baina zaila dago. Amerikarrek agintzen dute gure herrian. Espainiaren kolonia izan ginen 1899. urtera arte. Gero amerikarren mende geratu ginen. Korea, Vietnam... hainbat gerretan Puerto Ricoko jende askok parte hartu izan du. Horregatik

FELIX ARANZADI

“Santurtzitik irtendako itsasontzi batean heldu nintzen Puerto Ricora.

Hango portuak ere Santurce zuen izena eta hantxe sartu nintzen 1967an”

laguntza eta garapen handia izan dugu amerikarren bidez.

Zer moduz egun?

Urakan handiak izan ditugu urte askotan, baina handiena iazko irailaren 20an. Gure etxeko teilatua eraman zuen oso osorik. Orain urtebete pasa da. Baina oraindik eragozpenak, galerak berritzen gabiltza.

Aginagako marka han zabaldu duzu, eta euskara ere bai?

Itsasoa ondoan du eta horrek laguntza handia ematen digu guri arrain kontuekin. Han saldu izan ditut txitxardinak, Aginagako angulak...

Ze lotura duzu, Euskal Herriarekin, Aginagarekin?

Lotura egunerokoa. Egunero irakurtzen ditut horko egunkari eta aldizkariak. NOAUA! bidaltzen dute sarritan, hemengo berri emanaz. Berri guztiak harrapatzen ditut eta oso pozik.

Puerto Ricora joan zinenetik nola aldatu da Aginaga?

Aurrerapen handia ikusten

ari naiz hemen. Bihar bertan (urriaren 5agatik) “Oreina” ikusiko dut Aginagan. Mapil aldean grabatutako filma omen da. Ikusteko gogoz nago.

Oroitzapen asko izango dituzu erriorearen bueltan.

Gu txikitan nahiko igeri egiten genuen hor eskolara joan baino lehen. Eskolatik irtenda ere horra joaten ginen. Zingiran igeri ibilitakoa naiz. Ondo ibiltzen ginen, oso zoriontsuak ginen.

Nolako Aginaga zen ordukoa?

Oso langileak. Lurrak, baratzak oso ondo prestatuak. Jende guztia lanean. Aginaga oso aurreratua zegoen. Besteak beste angularekin. Gaur egun edozein tokitan ezagutzen dute Aginaga. Espainiako herrietan, baita Puerto Ricon ere, ezaguna dute Aginaga.

Zer diote?

Angulak oso onak direla baina garesti omen daude. Gu txikiak ginela oso merkea zen. Orduko dirurako ere balio zuen halere.

Urtero etortzen zarete hilabete pasatzera. Aginagara bizitzera itzultzea planteatu al duzu?

Ez. Betiko nago han. Hiru seme alaba eta sei biloba ditut.

Denak han dituzu?

Bat Dallasen, bestea Californian eta bestea Bahamar irletan. Amerikarrekin lanean, irakasle, informatika munduan...

Lagun urkoa maitatu

NOAUA! Puerto Ricora bizitzera joan izanak, mundu zabalera irteteak, zer irakatsi dizu?

Felix Aranzadi Manterola. Elkartasuna. Asko laguntzen du ikustarazten, nolakoak izan behar dugun jendearekin. Jende asko dago, hemen bezala, beharrez sentitzen diren askori laguntzen. Puerto Ricon jendea hartzen dugu Santo Domingotik eta beste herri batzuetatik ere bai. Han herri pobre pobreena izango dena Haiti dugu. Frantziaren mendean dago. Baina oso gaizki daude.

Migratu zenuen orain bost hamarkada. Nola ikusten duzu egun migrazioari ateak ixtea Europan?

Ondo tristea. Puerto Ricon ere paterak pasatzen ziren baina asko ito egiten ziren, Mediterraneoan bezala. Oraindik ere pasatzen dira, ez lehen bezala. Zer egin handia dago mundu osoan. Zer egin behar dugu lagun urkoarekin? Gure ebanjelioak dioena, jende askok ahaztu egiten du baina hor jartzen du garbi asko. Lehenengo mandamentua bada-kizu zein den? Lagun urkoa maitatu, besterik ez.

Zu bezala, euskaldun gehiago ere izango zarete han.

Euskal jai asko egin ditugu gure jatetxean. Inguruetan euskaldun asko eta asko. Esaten dute, Conde de Bilbaok jarri ziola portuari Santurce izena. Hemendik hara jende asko joan da. Colon baino lehenago euskaldunak han izango ziren noski. Hori seguru!

Eta aginagarren bat ere bai? Mapilgo ontzioletatik ziur. Aupa Agiña!

Atzerako kontaketa hasi dute Aginagan

Gipuzkoako Eskola Txikien jaia Aginagan ospatuko da datorren urtean. 2019ko ekainaren 9an igandea, zehatz esanda. Ikasturte osoa dute aurretik baina eskolako hezitzaileak eta gurasoak dagoneko antolaketa lanetan dabiltza buru-belarri. Aurreko larunbatean jaiaren logotipoa izango dena aurkeztu zuten Aginagako eskolaren atarian.

“Urte honetan lan asko izango dugu aurretik eta ongi etorria eta eskertua izango da denon laguntza”, adierazi zuen ekitaldia gidatu zuen ordezkariak. Aurkezpenari amaiera emateko, Aginagako Eskola Txikiko ikasleek dantza bat eskaini zuten bertaratu ziren lagunuen aurrean, logotipo urdina ondoan zutela.

Kamisetak salgai

Kamisetak eta jertseak egin dituzte propio ekainaren 9ko fes-



Gipuzkoako Eskola Txikien Eguneko logoa aurkeztu dute. Irudian ikusi daitekeen moduan, kolore urdina da nagusi.

tarako. Kamisetak 12 eurotan daude salgai; jertseak 20 eurotan umeentzat, 25 helduentzat. Logotipoaren aurkezpena egin eta berehala, bertan ipinitako salmenta puntua gainezka zegoen.

Logotipo bat ez da ikur huts bat. Kasu honetan, mezu bat

gordetzen du bere baitan. “Gure eskola txikiak auzo eta herrien elkargune, arima, bihotz dira”.

“Gure etorkizuna”

Urdin koloreko ikurraren birtartez honako hau adierazi nahi izan dute: “Gure eskola bakoitza belardi zabal eta anitz

honetako landare bat da. Bertan hazten, hezten, prestatzen, osatzen, mimatzen, heltzen eta zaintzen dira gure haziak, gure haurrak. Gure etorkizuna. Garaia iristen denean hegan egin dezaten, beraien bidea eginez eta beraien etorkizun berria landatuz”.

Zer esango zenioke
etorkizuneko zure ni-ari?

FutureNi.eus

Nola irudikatzen duzu zeure burua 30 edo 40 urte barru? Zer espero duzu? Nolakoa izango da zure bizi kalitatea? Adinberri da gaurko zein biharko erantzuna, adinekoen **arreta integralerako eredu berritzaile bat** hedatzeko.

Gehiago biziko gara. Bizi gaitezen hobeto.

ADINBERRI
OSASUNTU ZAHARITZEKO
ESTRATEGIA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputazioa Foral
de Gipuzkoa

**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**

Eskertza eta gorazarrea, Aginagako herri giroa bizirik mantentzeagatik

ONDOKO irudian duzuen emakume laukotea omenduz abiatu dituzte aurten, Aginagako jaiak. Urte luzez, isilpeko eta eguneroko lan gogorrari ekinez herri giroa bizirik mantendu dute. Urte luzez aginagarren bilgune izan direnak zutik eusten aritu ostean, erretiroa hartzeko garaia heldu zaie ordea. Egin duten ahalegin itzela eskertzeko, tokiko merkatari eta ostalariak omendu zituzten urriaren 4ko San Praixkuen hasiera ekitaldian; Eiza eta Etxebesteak.

“Ezkutuko lan ugari egin dako emakume asko ditugu inguruan. Amantalarekin, etxe barruan egindakoez gain, herrian majina bat zerbitzu ederrik eman dizkigute. Denda, jatetxe, taberna, konfesatokia... Ez dute sekula familia aurrera ateratzeko indarririk falta izan. Bai, asmatu duzue, Eiza eta Etxebesteri buruz ari gara! Ez al da ba egia? Zenbat txutxumutxuren berri izan duzue bertan? Gaurkoan aitoren xume bat egin nahi genieke, euren jarduna eten eta herritarrrongan utzi duten zuloa zertxobait bete dezagun”.

Xabier Aranburu “Xomorro” aginagarren haien omenez idatzitako bertsoak abestu zituzten Jai Batzordeak eta lore sorta bana jaso zuten, bertaturikoen merezitako txalo artean.

Gure Agiña txiki honetan
ikur izan dugu Eiza
lehengairen bat falta ezker
edonorentzat geriza
horko emakume prestuengatik
jasoz tratua bria
langile oso finak direla
antzean liteke aixa
omenaldia eginda gero
txit merezi duten gisa



Eiza eta Etxebesteak lore sorta bana jaso zuten.

JAI BATZORDEA

Hildako bizilagunen omenez minutuko isilunea gorde zuten. “Nor garen jakiteko, nondik gatozen jakitea garrantzitsua da. Beraiei zor diegu orain garena”

Etxebesten e emakumeak ezin ditugu ahaztu jana emanaz egin dute ta bizimodua marraztu Agiñan eta agiñatik at utziz hamaika arraztu nork ez baititu inoiz ikusi sukaldean eskuz esku bertaratu bizkor zerbitzen beti alai eta prestu

“Eman bizia Agiñari!”

Azken aldirian aginagarren hainbat bilgune itxi dituzte. Eiza eta Etxebeste kasu. Tes-tuinguru honetan, Aginagako herri bizitzarekiko kezka plazaratu zuen Jai Batzordeak, festak abiatzeko ekitaldian. “Pixkanaka Agiñan herri bizitza galtzen ari gara, dendak eta tabernak ixten”, nabarmen-tzen zuten. Baina ez dute ezer egin gabe geratu nahi. “Horri buelta eman nahi diogu. Ez da nahikoa urtean behin festetan

herritasuna aldarrikatzea. Herrian baditugu soziedadea, Jai Batzordea, Antxomolantxa, jubilatuen elkarte edota eskolako guraso elkarte. Hauek urtean zehar herrigintza lan-tzen dute, Agiña bizirik mantentzen saiatzen dira. Hauek gabe Agiña hilda legoke. Hau ez gertatzeko, azaldu, parte hartu eta gozatu mimoz egiten diren ekintzekin. Eman bizia Agiñari!”.

Etorbizuneko belaunaldia, poztasun iturri

Herri giroa bizirik mantentzen dutenak omendu nahi izan zituzten. Baita azken urtean hil direnak ere. Minutuko isilunea egin zuten haien omenez, jaiak hastear zitzutela. “Nor garen jakiteko, nondik gatozen jakitea garrantzitsua da. Beraiei zor diegu orain garena”, gogorarazi zuten, minutuko isilunearen aurretik.

Festa giroan egonik, alaitasun mezua ere helarazi nahi izan zuten. Poztasun iturri duten etorkizuneko belaunaldia hartu zuten ahotan. “Agiñako eskola umez bete dago, jaiotze berriak ere izan ditugu, pelikula ere grabatu zuten. Eta nola ez, gure pilotariaren debuta ere izan genuen ekainean”.

Jaietako azken asteburua

Urriak 12, ostirala:

Oilasko Biltzaileen Eguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera soziedadetik, indarrak hartu ondoren.
- 12:00 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.
- 15:00 Oilasko biltzaileen bazkaria frontoiko karpan.
- 17:30 Txan magoa.
- 18:30 Perkusio tailerra.
- 20:00 Patata tortila txapelketa.
- 21:00 Gazte afaria karpan.
- 22:00 Andoni bakarlarria.
- 23:30 Oharkabe erromeria Eliza Zaharrean.
- 02:00 Dj Seymar.

Urriak 13, larunbata:

Gaupasa Eguna

- 12:00 Molto-moto lasterketa.
- 13:00 Tira txinas jaurtiketa.
- 16:00 XXXVII. Mus Txapelketa Atarrialde Elkarte (izen ematea, 15:30-16:00 artean).
- 16:00 Partxis lehiaketa haurrentzat ludotekan.
- 17:00 Larrian Gozo taldea Eliza Zaharrean.
- 19:00 Elektrotxufila elektrotxaranga.
- 24:00 Los Zopilotes Txirriaos eta Laitz.
- 04:00 Dj Txankleta eta Dj JoTaTxo.
- 07:30 Elektropapo elektrotxarangaren laguntzarekin errefus-bilketa!

Oharrak:

- Aginagako Jai Batzordea ez da arduratzen egun hauetan gerta daitezkeen ezbeharrez.
 - Usurbilgo Udalak babesturiko festak direnez, erantzukizun zibilaren aseguru poliza ere Udalak bereganatzen du.
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Festei begirako sexu erasoen aurkako protokoloa

Jai parekide eta osasuntsuak, eraso sexistarik gabeko jaiak nahi dituzte Aginagan. Horretarako, San Praixkuoi begira, eremu honetan bideratu duten lanketa plazaratu du Jai Batzordeak, “erasoen aurrean nola erantzun jakin eta jendeak inolako erasorik ez dela onartuko jabetu dadin”.

Puntuz puntu azaldu dute sare sozialen bidez, zer egin, nola jokatu erasoren bat antzemaneraz gero. Lehenbiziko egin beharrekoa, “erasoren bat ikusiz gero, erasotua-rengana jo eta laguntza behar duen galdetu”. Erantzuna baiezkoa bada, “lagundu eta txosna gunera gerturatu”. Eta txosnan eraso baten berri eman bada:

- 1- Salaketa jasotzen duenak egiten ari dena utzi eta erasotuari kasu egin.



Salaketak bideratzeko telefono zenbaki bat zabaldu dute: 629 615 609.

PROTOKOLOA

Lehenbiziko egin beharrekoa, “erasoren bat ikusiz gero, erasotua-rengana jo eta laguntza behar duen galdetu”

- 2- Arretaz entzun (azalpenak, beharrak...) eta ez jarri zalan-tzan egoera.
- 3- Leku fisiko seguru bat bermatu, entzun, lasaitu...
- 4- Eraso identifikatu eta zehaztu.
- 5- Erantzuna eman: erasotzai-

learekin hitz egin eta argi azaldu ez dela halako jarrerarik onartuko. Gonetik kanporatu! Erasoren berri eman inguruan (ahoz aho, mikrozo...). Morborik ez, erasotua-renganiko errespertuz!

Salaketak bideratzeko telefono zenbaki bat ere plazaratu dute. Honakoa: 629 615 609.

Begiraleen lan poltsa

Urtean zehar ikasleek izaten dituzten opor garaietarako begiraleen lan-poltsa osatu nahi du Aginagako San Praixku Guraso Elkarteak, “Aginagan antolatzen diren Gabonetarako, Aste Santurako, udako txokoetarako eta baita goizetako zaintza zerbitzurako ere”. Interesdunek kurrikulumak aginaga@eskolatxikiak.org helbidera bidali behar dituzte, urriaren 26a baino lehen.

“Oreina” ezagutzeko ikusmina

Donostiako Zinemaldian aurkeztu, Euskal Herriko zine aretoetara jauzi egin eta astebera, Aginagako jaietan estreinatu zuten urriaren 5ean “Oreina”; iaz, urte garai honetan, erri bueltan grabatu zuten filma. Ondoko argazkian ikus dezakezue Eliza Zaharrea sortu zuen ikusmina. Erabilera anitzeko gunea, goraino bete zen.

Filmeko lan taldearen ordezkari bat ere proiektziora bertaratu zen. Tartean, Koldo Almandoz zuzendaria bera eta filmeko protagonista, “Khalil”, Laulad Ahmed Saleh alegia. Pozik eta esker oneko agertu ziren aginagarren aurrean. “Eskerrak zuei, filma areto honetan ikusteak guri sekulako ilusia egiten baiti-



Urriaren 5ean jende ugari batu zen Eliza Zaharrea.

gu. Eskertu jarritako erraztasun guztiak, guretzat plazerra izan zen, denak erraztasunak izan ziren”.

Proiektatzeaz ziren filmeko xehetasun askorik eman beharrik ez zuten izan, aurrean zituzten aginagarren bititoki,

edota etxe nahiz erri inguruetan grabatzen aritu baitziren iaz. Hein handi batean, Aginagan grabatua dago “Oreina”. “Zuek ziurrenik guk baino hobeto ezagutzen duzue pantailan ikusiko duzuen”, zioen Almandozek bertaratu

zirenei. Halere filma ikusteko modu argi batez gozatzen gonbidatu zituen aginagarren. “Pelikulek bere kasa hitz egin behar dute, utzi zuten burua errioren barneratzen”.

“Oreina” eta Aginaga, mundura

Donostiako Zinemaldian eskaini zuten lehen aldiz. Zine aretoetan ikusgai dago jada. Aginagan aurreko astean estreinatu zuten. Aginagako irudiak hedatzen segi asmo du etorkizunean “Oreina” filmeko lan taldeak. “Gure asmoa munduan zehar irudi hauek zabaltzea da. Bertako erria eta ingurua”, adierazi zuten urriaren 5eko proiektzioaren aurretik Almandozek, aginagarrei.

Duintasunez bizitzeko martxak Usurbil zeharkatu du

Joan den larunbatean Donostian eginiko manifestazioak borobildu du azken asteotan Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarteak deituta, herrialdean barrena egin den pertsona nagusien eskubideen aldeko bira. Bira urriaren 5ean Donostian batu ziren hiru adarretan banatu zuten. Hauetako batean, etapa batek Usurbil zeharkatu zuen bezperan, urriaren 4an.

Gipuzkoako Pentsiodunen Birarekin bat eginez, pentsio eta bizi duinen pertsona helduen eskubiden aldeko bira egin zuten hainbat herritarrek. Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkarte eta Aginagako Arrate jubilatutako elkarteek deituta, Ingemarretik abiatu, Kaxkoa zeharkatu eta Kalezarretik Troiara jaitsi eta N-634 errepidea zeharkatuz, Lasarterantz jo zuten.

Bidean, iragarria zuten moduan, hainbat geldialdi egin zituzten; lehenengoa Usurbilgo udaletxean. Bizi duin baten aldeko eskaerak biltzen zituen gutuna helarazi zioten Usurbilgo alkate Xabier Arregiri, udalbatzak aztertu eta bozkatu dezan.

Troian egin zuten bigarren geldialdia. Zonalde honetako N-634-ko pasabidean dagoen segurtasun falta salatzeke errepidea moztu zuten.



Gipuzkoako Pentsiodunen Birarekin bat eginez, pentsio eta bizi duinen aldeko biran hartu zuten parte hainbat herritarrek. Geldialdi bat egin zuten udaletxe aurrean.

URRIAREN 4KO MARTXA

“Usurbildik barrena egin zuten martxaren baitan, lehen geldialdia udaletxe atarian egin zuten. Bizi duin baten aldeko eskaera zerrenda biltzen zuten gutuna helarazi zioten Xabier Arregi alkateari”

Pentsio duinak

Gipuzkoako udalerrriak sentibilizatu nahi zituzten joan den

asteko birarekin, “nagusien balioaz eta gure eskubideen defentsaren garrantziaz” ohar-tarazi.

Usurbildik barrena egin zuten martxaren baitan, aipatu moduan, lehen geldialdia udaletxe atarian egin zuten. Bizi duin baten aldeko eskaera zerrenda biltzen zuten gutuna helarazi zioten mobilizaziora bertaratu zen Usurbilgo alkate Xabier Arregiri, idatzia udalbatzak aztertu, bozkatu eta onartu dezan. Ahal bezain laster gainera, alkatearekin berarekin biltzea eskatu zioten jubilatutako

elkarteetako ordezkariak.

Hamaika eskaera dituzte, hamaika behar asetzeke. Tartean, pentsio duinak galdegiten dituzte, erosahalmena ez galtzea. “Horregatik garrantzitsua da KPI-ari lotu dadila pentsio igoera eta hau egonkortzea. Era berean, jasangarritasun faktorearen indargabetzea eskatzen dugu”. Eta IRPF-aren aplikazioa ezabatzea. Lehendik ordaindua dutenez, “horren berehalako itzultzea eskatzen dugu”. Emakumeen eta bereziki alargunen errealitateak kezkarazten ditu.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Pertsona nagusien zinegotzia

Badituzte zuzenki Udalera bideratu nahi dituzten aldarri gehiago ere. Segidan dituzue zerrendatuak. Eskaera sorta biltzen zuen gutuna alkateari eman aurretik, idatzi honen edukia udaletxe atarian agerraldi bidez jendarteratu zuten. Ziotenez, “uste dugu zaharkeriaren fenomenoak, adinean oinarritutako diskriminazioak baduela bere eragina eta bizi arruntean bezala, bizitza administratiboan konpontzen joan behar duela. Eskatzen ditugu hurbiltasun gehiago eta urruntze gutxiago. Zuzeneko erlazioak gehiago eta burokrasia gutxiago”.

Horien artean, eremu hone-tako gaiak kudeatzeko, Udalak pertsona nagusien zinegotzi bat izatea eskatu zuten “bere aurrekontu egokiarekin”. Zinegotzi figura berri honen beharra badela argi uzten du ondoko zerrendak:

■ Erretirodunen zentro gu-



Udaletxean eskaera zerrenda bat aurkeztu zuten.

ESKAERA ZERRENDA

Arlo honetako gaiak kudeatzeko, Udalak pertsona nagusien zinegotzi bat izatea eskatu zuten “bere aurrekontu egokiarekin”

neekiko harreman instituzio-nalen hobetzea bultzatzea.

■ Gure zentro gunean jasangarritasun ekonomikoa bermatzea.

■ Pentsio duin eta zuzenago baten alde gure eskubidea babestea.

■ Mota guztietako hesiak ezabatzea eta etxebizitza, eraikuntza, eta pertsona guztientzako hiri espazioak ahalbidetzea.

■ Udalak Euskadi Lagunkoia

proiektuarekin bat egin dezala, hiri eta pertsona nagusie-kiko herri adiskidetsua izan dadin, hiri altzarien mantenua eginez, garbiketa eta segurtasuna zainduz, irisgarritasuna hobetuz...

■ Herri mailako pertsona nagusien kontseiluak bultzatzea eta erakunde honetako pertsona batek zuzendua izatea.

■ Bizitza guztirako izan behar duen heziketa aktiboa bultzatzea. Eremu honetarako inbertsioa biziagotu beharko litzateke.

■ Domotikaren aldeko apustua egitea, bai jubilatutako elkarreetan eta pertsona nagusien etxebizitzetan. Bizitza errazago eta duinagoa izan dezaten.

■ Ez desiratutako bakar-dadeari eta isolamenduari amaiera ematea aldarrikatzen dugu, horrek osasun fisiko eta buruko ahuldu dezakeelako.

Errepidea moztu zuten Troian, segurtasun eza salatzeke

Puntu beltzik gabeko Usurbilen aldeko eskaria plazara ez, errepideraino atera zuten urriaren 4an, pertsona helduen eskubideen alde Usurbildik Lasartera egin zuten martxan zehar. N-634 errepidea moztu zuten Troia parean, Usurbil seguru eta jasangarria nahi dutela aldarrikatzeko.

Gogoan izan, segurtasunaren ikuspuntutik, Troiako pasabidea dela herrian dugun puntu beltzetako bat. Egunerokoan hainbat oinezko nahiz bizikleta erabiltzaileek baliatzen duten pasabide arrisku-tsu honetan, ibilgailuen joan-etorria eta trenbidea zeharkatu behar dute, Usurbildik Zubieta



N-634 errepidea moztu zuten Troia parean, Usurbil seguru eta jasangarria nahi dutela aldarrikatzeko.

edo Lasarte-Oria aldera joan edo alderantzizko bidea egiteko.

Martxoaren 17an jendarean frontoian aurkeztu zuten “Puntu Beltzik Ez!” herri

plataformak bat egin zuen hitzordu honekin. Gogoan izan, duela zazpi hilabeteko lehen agerraldi hartan, aipatu herriarren bilgunea “kezkaturata eta akituta” eta haserre agertu zen, “gutariko askok gure bizitza egunero arriskuan jarri behar izaten” dutelako bidean. Aspaldiko arazoak izan arren, konponbiderik gabe segitzen dugula salatu zuten. Besteren artean, Usurbil zeharkatzen duten N-634 errepidea nahiz trenbideko hainbat puntu beltz seinatu zituzten. Erakundeei egoera hau konpondu eta “gure segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriak hartzea” exijitu zieten.

Mundualdia, urriaren 20an

Sorteri guztietako usurbildarren bilgune izan ohi den Mundualdia bueltan datorkigu urriaren 20an. Giro-tzeko, hainbat ekimen antolatu ditu herritar talde batek eta Udalak hurrengo asterako:

Urriak 17-21, asteazkenetik igandera

Argazki erakusketa Sutegiko aretoan: “Munduko hizkuntza gutxituak etxean”.

“Garabide Elkartek gonbidatuta, hizkuntza gutxituetako hiztun diren hogeitaz indigena egongo dira Euskal Herrian aurtengo iraila bukaeratik abendura “Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu” Ikastaroaren IV. edizioan. Usurbilgo Udalaren laguntzaz gauzatzen ditugun hizkuntza lankidetzako proiektuetako bat da ikastaroa, baina, Euskal Herrikan kanpo ere bide luzea egiten ari gara. Hain zuzen ere, hizkuntza komunitate horietara hurbiltzeko argazki erakusketa bat osatu dugu Mundualdia jaialdiaren baitan, leihobat ireki nahi dugu mundura, elkarrengandik asko baitauka-



Jaki ezberdinak dastatzeko aukera izango da eguerdi partean.

ERAKUSKETA

Urriaren 17an “Gaurko migrazio mugimenduak xenofobia eta elkartasuna” erakusketa zabalduko dute Sutegiko erakustaretoan

gu ikasteko”.

Urriak 17, asteazkena

19:00 Sutegiko erakustaretoan: “Gaurko migrazio mugimenduak xenofobia eta elkartasuna” SOS Arrazakeria eta Amher elkarteak.

Urriak 20, larunbata

Mundualdia frontoian:

12:00 Alkatearen agurra.

13:30 Jakien dastaketa.

16:00 Gaztelekuaren ekimena.

19:30 Olana Liss taldearen kontzertua.

Urriak 21, igandea

18:00 “La mochila invisible” dokumentalaren proiektzioa Sutegiko auditorioan, Bidez Bide elkartearen eskutik. Hizkuntza: gaztelania.

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta herritar talde bat.

Tadamun-en aurkezpena eta hitzaldia

“Zapalduen oihuak bat egiteak eta herrien elkartasunak saretzen dute etorkizuna. Sare hori mantendu eta hobetzeko, Usurbildik ere, gure aletxoak jartzeko sortu da Tadamun. Mundu best errealitateak eza-gutu, beraiekin bizipenak konpartitu eta eskutik helduta borrokatzeko. Herriek egiten dutelako mundua eta mundua guztiona delako”. Tadamun jendaurrean aurkeztera doaz, urriaren 19an Sutegin.

Urriak 19, ostirala

■ 19:00 Tadamun herrien arteko elkartasuna. Aurkezpena.

■ 19:30 Hitzaldia: “Giza eskubideen begirale Txia-pasen”. Hizlaria: Xabier Yurramendi.

■ Tokia: Sutegiko auditorioa.

■ Laguntzailea: Lumaltik.

■ Informazio gehiago, Twitterren: @tadamun_herriak

Urriaren 20an, “Harria Hitz”

ibilbide gidatua

Ibilbide gidatuen edizio berri bat ospatuko da, Mundualdi egunean, urriaren 20an.

Urriak 20, larunbata

Harria Hitz, ibilbide gidatua: Usurbil eta Euskal Kultura garaikidea.

■ 10:00 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean, frontoitik abiatuta.

■ 11:15 TxTxTx Txokoaldeko Txalaparta Txokoa.

■ 12:35 Zumeta Arte Estudioa.

Izen ematea, aurrez:

688 818 017

info@kultour.pro

Plaza kopuru mugatua.

Manifestazioa urriaren 27an

Gogoan izan, eragile anitzek (Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, GuraSOS, Gipuzkoa Zutik, GEIS/OEIT, Eguzki, Greenpeace, ERNAI, ELA, LAB, CCOO, EHNE, ESK, STEILAS, HIRU eta “No + Precariedad”) Zubietako erraustegia gertzeko manifestazioa deitu dute urriaren 27rako (larunbatez) Donostian. 17:00etan abiatuko da Euskotrenen Amarako geltokiaren eta Urumea ibaiaren artean dagoen Mendeurren plazatik.

Deitzaileek mobilizazioa iragartzeko agerraldian gogorarazten zuten, azken urtean gutxienez 18 erraustegi

itxi edo geratu dituzte mundu mailan. Haietako batzuen aipamena egiten du hain zuzen, manifestazioa iragarri denetik, mobilizazioa iragartzeko sare sozialetan barrena bolo-bolo dabilen kartelak.

Mexiko, Australia, Italia...

Hainbat kasu aipatzen ditu. Hango bizilagunak gure artean izan ditugunez, ezaguna izango zaigun Madrilgo Valdemingomezeko erraustegiarena. Hiriburu hartako Udalak aipatu “erraustegia ixtea erabaki du”. Madrildik Europako beste hiriburu batzuetan hartu dituzten erabakien berri. Belfasten,

“erraustegi proiektua bertan behera utzi dute epaileek” eta Italian hainbat proiektu bertan behera utzi dituzte. “Italiako gobernuak legea aldatu eta ez ditu baimenduko 12 erraustegi berri”.

Itsasoz bestalde, “Mexikoko udal gobernu hautatu berriak erraustegi proiektua geldiaraziko du”, eta Argentinan, “Buenos Airesek ezingo du hondakinik erre, auzitegiak lege aldaketa ezabatuta”. Gugandik are urrunago ere halako proiektuen aurkako neurriak hartzen dabilza. “Australian Sydneyko mega-erraustegi proiektua atzera bota dute, kutsaduragatik”.

Urriaren 21ean, Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna

Eskualdeko landa eremu eta bide zidorrak ibilian hobekiago ezagutzeko aukera ederra izango dugu, udal eta eragile talde batek urriaren 21erako antolatu duen Buruntzaldeko Ibilbideen 11. Egunari esker. Andoain, Urnieta, Lasarte-Oria eta Usurbil herrietako bideetatik barrena osteratxoa egiteko gonbita luzatzen dute goizez, 9:00-14:00 artean.

Informazio gehiago:
buruntzaldea.eus



Andoain, Urnieta, Lasarte-Oria eta Usurbil herrietako bideetatik barrena osteratxoa egiteko gonbita luzatzen dute.

Andatzako kideak Pirinioetara doaz

Asteburu honetan hiru eguneko irteera osatuko dute. Eta azaroaren amaieran, Mendi Astea ospatuko dute. Egutegi hau iragarri dute:

■ Urriak 12-13-14: 3 eguneko irteera Pirinioetara (izen-emaitea urriaren 3an itxi zen).

■ Azaroak 11: Otsondo-Bidarrai.

Mendi Astea:

Azaroak 22, 23: proiektzioak Sutegin.

Azaroak 25: mendi irteera (Alkiza-Hernio-Asteasu).

Informazio gehiago:
andatz.com

Antolatzailea:
Andatza M.K.T.

Yoko-Garbin bazkide egiteko epea igande honetan amaituko da

Zubietako Yoko-Garbi Elkartetik bazkide izateko azken aukerak dituzuela berri eman dute. NOAUA!ra helarazi duten oharrean adierazi dutenez, urriaren 14ra arteko epea duzue Alamandegi jatetxean edo yokogarbielkarte1@gmail.com helbidean izen emateko.

Alamandegi etxean kokatuko da

“Familia bonoiez gozatzeko aukera, jubilatuei deskontu bereziak...” eskaintzen zaizkie. Informazio gehiago behar duenak ere lehen aipaturiko helbide horretara idatzi



Yoko-Garbitik iragarri dutenez, elkartearen egoitza berria Alamandegi etxean kokatuko da.

dezala. Yoko-Garbitik iragarri berria Alamandegi etxean dutenez, elkartearen egoitza kokatuko da.

Eskubaloï partidak

Urriak 12, ostirala

■ 11:30 Jubenil neskek,

Territoriala:

Usurbil K.E.-Eibar Eskubaloia

Urriak 13, larunbata

■ 17:00 Kadete neskek,

Territoriala:

Usurbil K.E.-Eibar Eskubaloia

Futbol partidak

Urriak 12, ostirala

■ 12:00 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Urnieta K.E.

Urriak 13, larunbata

■ 11:00 Kadete neskek:

Usurbil F.T.-Goierri Gorri F.K. B

Larunbatean, Mus Txapelketa Aginagan

San Praixku jaietako bigarren asteburua hemen da. Larunbat honetan, hilak 13, XXXVII. Mus Txapelketa jokatu da Atarialde Elkartearen. Arratsaldeko 16:00etan hasiko dira partidak baina aurretik eman behar da izena. Arratsaldeko 15:30ean zabalduko dute inskripzio-epea.

Igerilekuak itxita jarraitzen du

Iraila amaieratik itxita dago Oiarde Kiroldegiko igerilekua. Eta hala segiko du datozen hilabeteotan. Igerileku txikia handitu eta irisgarri bihurtzeko lanak bideratuko dituzte. Itxierak ez du eraginik izango abonueetan, “eta %20ko konpentsazioa berdin-berdin aplikatuko die Udalak Kiroldegiko abonatuiei”.



Igerileku txikia handitu eta irisgarriago egingo dute.

ETXEBIZITZA

Salgai

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro², 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbiderekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukalde, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komun, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosteko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Camper furgoneta salgai. 2007koa, 130.000km. Oso egoera onean. Duxa, ohea, frigoa, armairuak, termikoki aislatua, mahaia, argiak, aurreko eserlekuak biragariak... (679471831 Jon)

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekabizki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia.

615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabizki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretre-gian, info@restaurantearatz.com

Kentuene jatetxean jantokirako zerbitzari bat behar da aste-buruetarako. Euskara jakitea garrantzitsua. kentuene@kentuene.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztailea edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauean, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo exter-

na bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauean. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztailea, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872.

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak



Zorionak etxeko sorginari. 2 urte potolo, ederki ospatuko dugu! Marrubizko muxu pila.



Zorionak!! Urriaren 12an 50 urteko ibilbidea osatzen duzue elkarrekin!! Zorionak etxeko guztien partetik eta primeran ospatuko dugu!!



Zorionak Lilien! 9 urte puxka! Asko maite zaitugu. Muxu handi bat familia guztiaren partez.

Heriotzak

Mikeli Balerdi Olasagasti

61 urterekin hil zen urriaren 2an Usurbilen



Miguel Orbegozo Iraola

91 urterekin hil zen urriaren 2an Aginagan



OHARRA: 2018ko urriaren 19an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: urriaren 15ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezela edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Espe-

rientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, kla-

se partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezela edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezela, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauzez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeko ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

BESTELAKOAK

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Babilio sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Zapi bat galdu da, beisa eta grantea, Noauara ekarri mesedez.

Mandarina japoniarrik saltzen ditut: 659 18 51 07 (Jose Antonio).

Mutur txuri urdindun eta horidun perikito bana desagertu dira. Aurkitu badituzu deitu: 619 817 460.

Kale Nagusian, kazadora argi bat aurkitu da. Zurea bada, Aizpurua Okindegitik pasa, bertan dago.

Erloju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pulstometroa. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 11	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 12	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 13	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea 14	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Astelehena 15	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea 16	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola	9. Lasarte
Asteazkena 17	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Urriak 11 - Urriak 21

Osteguna 18	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 19	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 20	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 21	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekitako egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

12 ostirala

■ Aginagako jaiak: Oilasko Biltzaileen Eguna. Egitaraua, 14. orrialdean.

■ Hecho-Bisaurin-Estanes-Aspe mendi irteera. Urriak 12/14. Irteera, 6:30ean kiroldegian. Urriaren 3an amaitu zen izen-ematea. Antolatzailea: Andatza MKT.

13 larunbata

■ Aginagako jaiak: Gaupasa Eguna. Egitaraua, 14. orrialdean.

14 igandea

Ziortza Gazte Elkarteak, ikasturte berrira begira

Ikasturte berriko plangintza aurkezteko guraso bilera deitua du Ziortza Gazte Elkarteak asteazken honetarako, urriak 10, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Lehenengo saioen ordutegiak ere finkatu dituzte:

DBH 1-2:

■ Urriak 19 ostirala, 20:00.

DBH 3:

■ Urriak 19 ostirala, 20:30.

DBH 4:

■ Urriak 26 ostirala, 21:00.



Ziortza Gazte Elkarteko LH5-6 ko gazteak Gure Pakea elkarteko kideekin batu ziren maiatzean.

Jubenilak:

■ Urriak 19 ostirala, 21:00.

Pello Añorga ipuin kontalaria Sutegin

Pello Añorga ipuin kontalaria Sutegin udal liburutegian arituko da urriaren 17an. 6 urtetik gorako haurrei eskainitako saioa izango da. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da emanaldia.

Urriaren 19an, malabareak ludotekan

“Ikusi eta ikasteko!” malabare tailerra antolatu du Bihurri ludotekak hurrengo asterako. Urriaren 19an ostirala, arratsaldeko 17:30ean hasiko da tailerra.

Datozenak



Urriaren 21ean, organo kontzertua

Giula Biagetti italiarraren kontzertua antolatu dute Usurbilgo Udalak, Usurbilgo Parrokiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urriaren 21erako arratsaldeko 19:00etan Salvatore Elizan. Sarrera doan.

Arantxa Urretabizkaia, Irakurketa Topaketan

12. Euskarazko Irakurketa Topaketarako Arantxa Urretabizkaia gonbidatu du Sutegi udal liburutegiak. Urriaren 24rako finkatu dute solasaldia, 19:00etan liburutegian bertan. Gaurkotasun handiko gaia ekarriko du tertuliara. Bere “Bidean ikasia (1993-2016)” Hondarribiko alarde parekidean Urretabizkaia bititakoaz diharduen eleberria komentatuko da, Yolanda Arrietak zuzenduko duen ekitaldian. Eleberriaren aleak aurrez irakurri nahi dituzuenok, eskuragarri izango dituzue liburutegian.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
© 943 370 008

ARATZ

zabaleta anaiak



29 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ



**ANIMA ZAITEZ!
EMAN IZENA!!!**



Izen-emateko aukerak:

eskaneatu azaltzen den QR kodea edo

Noaia-n, Potxoenean edo <https://izenematea.euskaraldia.eus> weborrian

**2018KO AZAROAREN 23TIK
ABENDUAREN 3RA**



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefonia
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatikí 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Punlapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri Arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOKHUNEKO ALIZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



ventamix

· LEIHOAK NEURRIRA
· BARANDILAK · ALUMINOA-PVC

943 59 32 58 600 80 30 05
info@ventamix.com · Ugaldea polig. 18, USURBIL